

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2011ko urriaren 26a. VIII. urtea. 2.296. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Felix Irazustabarrena Gpuntuko epailea

«Publikoa ezberdina izaten da plazetan eta txapelketetako saioetan»

1993az geroztik bertso txapelketa eta sariketetan epaile gisa aritzen da alegiarra; «maila oso ona» ikusi du Gpuntuan **7**

Adinean gora joan ahala, hizkuntzaren inguruko jarrera aldatu egiten da

Tolosako hiru ikastetxe ahozketasunaren laborategi bihurtu dira; Mintzola fundazioak egitasmoaren lehen emaitzak eman ditu **5**

Berastegiko Argazki Rallyko irabazlearen izena azaroaren 13an jakingo da

Aurtengo Argazki Rallyan 31 lagunek hartu dute parte; irabazlearen izena Azoka Berezian emango dute; bitartean, parte hartzaileen irudiak ikusgai daude udalaren webgunean **6**

Txintxarri Abesbatzak bere eguna azaroaren 6an ospatuko du

Txintxarri Egunean bazkaria egingo dute, eta txartelak erosteko azken eguna igandea da; larunbatean Kataluniako Montau abesbatzaren kontzertua izango da **3**

Luis Espinosa Abesbatza Lehiaketako zuzendari artistikoa

«Etortzen diren koruek ekarpenen bat egin dezaten saiatzen gara»

Tolosako Abesbatza Lehiaketan aurretik irabazle izan diren bi koruren eta Landarbaso abesbatzaren parte hartzea nabarmendu du Espinosak **4**



**FUNERARIA
VASCONGADA
EHORZKETAK**

Kondeko aldapa, 5
www.funerariavascongada.com



Gertu...

TOLOSAKO
HILETA ZERBITZUAK
BETLATOKI BULABEA

24 H..

943 670 040



2010eko urrian zozketatu zituzten Igarondoko babes ofizialeko etxebizitzak. A. IMAZ

Berogasek hornituko ditu Igarondoko babes ofizialeko 24 etxeetako sukaldeak

Honekin batera, Gobernu Batzordeak udaltzainei jantziak aldatzeko eskaera ere onartu du

Itzea Urkizu

Igarondo esparruko babes ofizialeko 24 etxeetan, Berogas Langile Elkartea arduratuko da sukaldeak hornitzeaz eta jartzeaz, Gobernu Batzordeak hala erabakita. Enpresa honen proiektua aukeratzeko arrazoi nagusienetarikoa, prezioarena izan da.

Pasa den irailaren 30eko gobernu batzarrean hartu zuten erabakia, Ibai Iriarte alkateak, eta Lore Agirre, Asier de los Rios eta Edurne Mendia zinegotziek. Maiatzaren 18an, alkate dekretuz onartu ziren Igarondo eremuko babes ofizialeko 24 etxebizitzetan, sukaldeak hornitu nahiz instalatzeko agiria eta espedienteak.

Horrela beraz, zegokion txostena bideratu zuen udalak, eta lau

proposamen aurkeztu ziren. Euren proiektuaren eskaintza egin zuten guztia onartu zituen udalak, prozeduran parte hartzeko; horretarako beharrezkoa zen dokumentazioa behar bezala aurkeztu zuten, hain zuzen. Honen ondoren, orde, eskaintza ekonomikoaren eta dokumentazio teknikoaren inguruko dokumenta-

82.453,50 euroko kostua izango du Igarondoko sukaldeak hornitu eta jartzeak

zioa ere aurkeztu zuten proposamena egin zuten lau enpresek.

Pasa den abuztuaren 2an, arkitecto aholkulariak zegokion txostena burutu zuen, proposamen guztien balorazioa eginez; espedienteak jasota dago aipaturiko txostena.

Azkenik, Igarondo eremuko babes ofizialeko 24 etxebizitzetako sukaldeak hornituko eta instalatuko dituen enpresaren izena irailaren 2an erabaki zuten.

Proiektua Berogas Langile Elkarteari eman dio udalak, eta «erabakiorra izan da preziorik merkeena proposatu izana», proposamenak berdintsuak izan baitira gainerakoan. Horrela beraz, 82.453,50 euroko prezioan burutuko du sukaldeen hornidura Berogas Langile Elkartek

Udaltzaingoaren eskaera

Tolosako udaltzainen batzarrak, uniforme aldatzea bat eskatu dio gobernu batzarrari. Funtsean, udaltzainek azken uniforme aldatetarik burutu aurretik zuten arropa edo uniformera, nahiz ikurretara bueltatzeari eskatu dute.

Udaltzainen batzarrak aurreko uniforme eta ikurretara bueltatzeari eskatu dio udalari

Honen aurrean, Gobernu Batzordeak aho batez onartu du, jantzi guztiak aldatzeko, nahiz pegatinak aldatzeko, aurrekontua eskatzea.

Lodosa bisitatuko du Amaroizko Beti Gazteak elkarteak

Azaroaren 8an hasita, eskulan eta jantzigintza ikastaroa egiteko aukera ere izango da elkartearen lokalean

I. Urkizu

Larunbat honetarako, txangoa antolatu du Amaroizko jubilatuek eta pentsiodunen Beti Gazteak elkarteak. Lodosara joango dira, zenbait eraikin nahiz museo bisitatuz.

08:45ean izango da irteera, Zuzen Txikitik. Amaroiztik, berriaz, 09:00etan irtengo dira. Behin Lodosara iristen direnean, piper kontserbetan espezializaturiko Peron kontserba etxean ongi etorri hamaiketako egingo dute.

Ondoren, XVI. mendeko den Lodosako parroikia ikustera joango dira. Era berean, pikillo piperren monumentua nahiz herriko plaza ere bisitatuko dituzte.

Bazkaldu aurretik, berriaz, Azagrako bidean, Cárcar herriko Valdeares upategia bisitatuko dute.

Eguerdiko 14:00ak aldera, Ve-

necia jatetxean bazkaria egingo dute. Honako menua izango dute: Azagrako barazkien menestra eta salda, etxeko entsalada, bakailoa bizkaitar erara, etxeko tarta eta izozkia, kafea eta xanpaina, azagrako ardo beltza nahiz gorria, eta likore txupitosa sartuko zaizkie menuaren barruan.

Txangora joan nahi duenak, 33 euro ordaindu beharko ditu. Izena emateko, 653 747 192 telefonora hots egin daiteke, ostegunetan eta ostiraletan, 17:00etatik 20:00etara bitarte.

Eskulan eta jostintza tailerrak Beti Gazteak elkarteak, eskulan eta jostintza ikastaroa ere antolatu ditu.

Datorren azaroaren 8an hasita, 16:00etatik 18:00etara bitarte, jostintza tailerra izango da. Eskularen ikastaroa, berriaz, azaroaren 9an hasiko da, eta ordutegi bera izango du.

Bi ikastaroek 42 euroko prezioa izango dute, eta 40 orduko iraupena. Ikastaroen inguruan datu nahiz argibide gehiago jasotzeko, 676 24 19 60 telefonora dei egin daiteke.

→ Laburrak

Ahozko narrazio berebera izango da gaur Aranburun

KULTURA » Herenegun liburategien nazioarteko eguna zela ospatzeko, Mohamed M. Hammu izango da gaur Aranburu jauregian, ahozko narrazio berebera bat gaztelaraz kontatzen. *Patera de cuentos* narrazioa eskainiko du, 19:00etan hasita. Bestalde, urrian Aranburun nahiz Errotan liburuak maileguan hartzen dituzten bazkideek liburu zozketa batean parte hartuko dute.

Azaroaren leian, autobus zerbitzua hilerria joateko

GIZARTEA » Datorren azaroaren leian, asteartea, Tolosako hilerria joateko autobus zerbitzu berezia jarriko dute. Musika eskolatik 09:00etan, 09:45ean, 10:30ean, 11:15ean, 12:00etan, 12:45ean, 15:00etan, 15:45ean, 16:30ean, 17:15ean eta 18:00etan irtengo da Hiribusa. Ibilbideari dagokionez, Musika Eskola, San Frantzisko Eliza, Geltokia, Berazubi, Iurramendi, Kiroldegia, Amaroiz, Kanposantua, Iparragirre, Bizkaia kalea, J.A. Irazusta eta Trinketeko geltokietan geratuko da autobusa. Bezperan, ohiko autobus zerbitzua izango da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



HITZAK harpidedunentzat **sarrera** pareo du




**X. Nazioarteko
Trikitixa Jaialdia**

Ostirala, urriak 28
22:00etan Andoaino Basteron

Parte hartzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira



sarrerak



TXOKO hitza®

Txintxarri Eguneko bazkarirako txartelak salgai daude

Txintxarri Eguna azaroaren 6an izango da, eta txartelak erosteko azken eguna hilaren 30a, igandea da

Nerea Pikabea Alegia

Urtero legez, Txintxarri Abesbatza Kultur Elkartek Txintxarri eguna ospatuko du azaroaren 6an. Egun horretan Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzek kontzertua eskainiko dute, eta horrezaz gain, bazkaria egingo da Txintxarri jatetxean.

Bazkarirako txartelak salgai daude urriaren 30a, igandea arte, honako toki hauetan: Landa okindegian, Letamendia kafean, Jubilatuen elkartearen eta Kurpielen. Bazkari txartelak 35 euro balio ditu.

Iazko urtea berezia izan zen abesbatzarentzat, ekitaldietan herritarren parte hartzea sekula baino handiagoa izan baitzen. Aurten ere ipiritu horri eutsi



Iazko Txintxarri Eguneko bazkarian jende asko elkartu zen. HITZA

nahi diote korukoek, eta hori dela eta, abesbatzak jakinarazi nahi du, nahi duen orok parte har dezakeela Txintxarri Eguneko bazkarian. Bazkari herrikoia izatea nahi da, kantu-giroa oinarri izango duena. Bazkarian kanturik ez da faltako, eta hori dela eta, kantatzea gustuko duten herritarrek bazkaltzera animatu nahi ditu Txintxarri abesbatzak.

Herritar guztiak dei egiten zaie

Txintxarri eguneko bazkarian parte har dezaten, eta nahi duen guztiarentzat izango da lekua.

Kataluniako abesbatza

Datorren larunbatean, hilaren 29an, Bartzelonako Begues herriko Montau abesbatzaren bisita jasoko du Txintxarrik. Saioa eskainiko dute elizan, 20:00etan. Kataluniako korua Alegiara datorren bigarren aldia da.

→ Laburrak

Asis Sarearen otoitzaldiak Areson eta Tolosan, bihar

ERLIJIOA ▶ Bihar, hilak 27, Asis Sarearen otoitzaldi bilkurak egingo dira Aresoko Jasokundeko Ama Birjinaren elizan eta Tolosako Klarisen komentuan. 19:30ean izango dira. Dagoeneko bi mila lagun inguru biltzen dituen Asis Sareak, beraien bilatze bide pertsonalaren edo eguneroko fedearen bizipenean, espiritualtasun frantziskotarraren balioaren intuizioa dutenekin bide zabala eta plurala jorratu nahi du.

Asier Gallego Espainiako sub-15 txapelketan bigarren

VILLABONA ▶ Asier Gallego pultsulariak 14 urte ditu, eta Danok Danena Halterofilia Taldekoa da. Urriaren 15ean Molins del Rein (Bartzelona) ospatu zen Espainiako 15 urte azpikoen txapelketa, eta bertan bigarren postua eskuratu zuen, 62 kiloko mailan. Lehenengo postua eskura izan zuen, baina bi denboratan egin zuen 100 kiloko altxaldia erori egin zitzaion.

Linfedemari buruzko tailer irekia egingo dute, gaur

TOLOSA ▶ Gaur, 11:00etan, Minbiziaren Aurkako Elkartek antolatuta, Emeterio Arresen duten egoitzan doako tailerra izango da. Ganglioen hustuketa izan eta gero, sistema linfatiko eta giharren arazoei nola aurre egin erakutsiko dute.

Kutxa Bank-i buruzko hitzaldia, bihar 19:30ean

TOLOSA ▶ Tolosako Bilduk Kutxa Bank-i buruzko hitzaldia antolatu du. Hitzaldia, bihar, hilak 27, 19:30ean izango da Tolosako udaletxeko batzar aretoan. Bertan, Joxean Urkiola izango da hizlaria, eta gai honen inguruko Bilduren jarrera azalduko du. Herritar guztiak gonbidatuta daude bertan parte hartzera.

Ostirala da ikastaroan izena emateko azken eguna

ALEGIA ▶ Udazken kulturalaren barruan makrobiotikako ikastaroa antolatu dute. Azaroa asteazkenetan, hau da, 2, 9, 16, 23 eta 30ean izango dira saioak. 19:00etatik 22:00etara Txintxarri elkartearen egingo dira. Ikastaroa Aitor Jimenezek emango du, eta 15 euro ordaindu beharko da. Izena kultur etxean eman beharko da ostirala baino lehen.

Toka Txapelketan parte egingo dute, larunbatean

VILLABONA ▶ Villabonako Arnasa tabernak Toka Txapelketa antolatu du. Larunbatean 16:30ean emango zaio hasiera. 18 urtetik gorakoentzat izango da, eta izen emateko aukera hasi baino ordu bat lehenago itxiko dute. Bakoitzak 5 euro ordaindu beharko ditu. 11,20 metroko distantziatik botako dira, eta sei fitxako hiru tiraldi izango dira. Lehen hiru sailkatuek saria izango dute, eta parte hartzaileen artean ere sariak zozketatuko dituzte.

Murrizketak salatzeko greba egingo dute, bihar

Nafarroako Gobernuak hezkuntzan egin dituen murrizketak salatzeko greba egingo dute; atzo geldialdia egin zuten

E. Maiz Leizta

Nafarroako Gobernuak hezkuntzan egin dituen murrizketak salatzeko protestekin aurrera ja-

rraitzen dute Leitzan. LAB, ELA, STEE-EILAS, CCOO eta CSIF sindikatuek deituta, bihar, osteguna, greba egingo dute hezkuntzako langileek.

Atzokoan, berriz, beste behin ere geldialdia egin zuten. Leitzan. Bi orduz kalera atera ziren Amazabal institutuko eta Erleta eskolako Lehen eta Haur Hezkuntzako irakasle eta ikasleak. 11:00etatik 13:00etara euren eskubideak aldarrikatu zituzten.

Daniel Gabaroren hitzaldia eta tailerra izango dira, doan

Larunbatean hitzaldia 15:00etatik 16:00etara, eta tailerra 17:00etatik 20:00etara izango dira, kultur etxean

E. Maiz Alkiza

Amañili Alkizako emakumeen elkarteak, Daniel Gabaroren hitzaldia eta tailerra antolatu ditu. Larunbatean, hilaren 29an, Alkizako kultur etxean izango dira. Daniel Gabarro Kataluniatik etorrriko da, eta gaztelerez izango dira.

Lehenengo, 15:00etan hasita *Educar para la libertad* hitzaldia eskainiko du. Ondoren, 17:00etatik 20:00etara, *Fracaso Escolar* tailerra egingo dute. Daniel Gabarro adituak argitaratutako materiala erosteko aukera ere izango da Alkizan.

Doakoa da parte hartzea, baina plaza kopurua mugatua izango denez, joan nahi duenak, *amanili.alkiza@gmail.com* helbidera idatzit beharko du. Amañili Elkartek, Gipuzkoako Foru Aldundia-
ren laguntza izan du hitzaldia eta tailerra antolatzeko.

Azaroko irteeran Okabe eta Urkulu igoko dituzte

Oargi mendi elkarteak azaroaren 4etik 6era egingo du irteera; Iratiko oihanera joango dira bertan lo egiteko

E. Maiz Tolosa

Azaroaren lehen asteburuan Iratiko oihanera joango dira Oargi-koak, eta Okabe eta Urkulu mendiak igoko dituzte. Azaroaren 4ean Tolosatik irten, eta Iratiko

etxoletan lo egingo dute. Azaroaren 5ean, GR 10 jarraituz oinez itengo dira Okabe tontorreraino. Ilharritako megalitoak, Surzai, Saroberri, Burdinkurutzeta, Mendibel eta Arthanolatze pasako dituzte, Iratiko etxoletan bukatzeko.

Igandean, Iropileko gainean autoa utzi, eta Urkulu, Azpegi, eta Orion pasa ondoren, Errozateko lepora joango dira. Harpea kobazulora jaitsi eta pistari jarraituz autora iritsiko dira. Izena ohiko lekuan eman beharko da.

hitza

aren udazkeneko arropa eskaintza

Haurrentzako jertsea: 25 €

KOLOREAK:
Morea • Berdea

NEURRIAK:
3-4/5-6/7-9/9-11

Helduentzako Jertsea: 29,5 €

Kolorea: beltza
Gizon eta emakumeen modeloak

Neurriak:
• Gizonak: S-M-L-XL-XXL
• Emakumeak: S-M-L-XL

Noiz eta nola egin eskaria?

Urriak 28 bitarte duzu aukera eskaera egiteko

• TELEFONAZ: 902-82 02 01

• POSTAZ: harpidetza@hitza.info

hitza

Luismi Espinosa ▶

Tolosako Abesbatza Lehiaketako zuzendari artistikoa

Aurtengo lehiaketan, Tolosan aurretik irabazi duten bi abesbatza daudela nabarmendu du Espinosak. Gustura dago Landarbasok ere parte hartuko duelako.

«Musikan garrantzitsuena jendearengana iristea da»

Imanol Garcia

Aurten lan bikoitza du Luismi Espinosak (Tolosa, 1956): urteroko Abesbatza Lehiaketari, Europako Sari Nagusia gehitu behar zaio. 15 urte zituela hasi zen laguntzen antolakuntzan, eta hogeitaz baina gehiago daramatza zuzendari artistiko gisa. Lehiaketara etortzen diren abesbatzen aukeraketaz arduratzen da.

Zer du nabarmentzeko aurtengo Abesbatza Lehiaketak?

Lehiaketa bat denez, urtero errepikatzen diren ezaugarri jakin batzuk ditu. Maila oneko abesbatzak ekartzea da beti gure helburua. Batez ere, ezustekorik ez hartzea.

Eta hori gertatzen da?

Ez da ohikoa. Iaz Bulgariatik etorri zen abesbatza bat, erakunde jakin batekoa. Gobernuak erakunde hori babesten zuen lehen, eta maila onekoa zen. Baina, gobernu sistema aldatu denetik, badirudi babes hori jaitsi egin dela, eta iaz etorri zen abesbatzak ez du zerikusirik ezagutzen genuenarekin. Horrelako gauzak ez daitezkeen gertatu saiatzen gara. Etorritzen diren abesbatzek ekarpenen bat egin dezaten saiatzen gara.

Zu zara koruen hautaketaren arduradun nagusia. Nola egiten duzu lan hori?

Batzutan beste herrialdeetara joaten naiz, baina badaude beste bide batzuk ere: beti daude kan-

pora joaten diren abesbatza euskaldunak, beste herrialdeetan ditugun kontaktuei deitzen diegu,... Bestalde, izena emateko epea zabaltzen dugu eta eskaerak jasotzen ditugu. Gertatu daiteke abesbatza on batek grabaketa txar bat bidaltzea, edo alderantziz. Ez da ohikoa, baina salbuespenak ere badaude. Italiako korbato etorri zen behin, berez ospe handia zuena, baina ez zuten mailarik eman: zuzendariak berak emandako tonua ez zuen harpatzen.

Beste lehiaketetara ere joaten zara?

Joaten naiz, baina ez denetara. Nire egin behar garrantzitsuenetakoa bat lehiaketetaz aparte beste zirkuitu batzuetatik abesbatzak lortzea da. Tolosan irabazi duten zenbait abesbatza Interneten nabigatzen aurkitu ditut.

Maila ona izateaz gain, beste zer ezaugarri ematen diozue garrantzia?

Aniztasunari. Ez daitezela, esaterako, hamabi koru aleman etorri; maila ona emango dizute, baina ordezkaritza anitza egotea nahi izaten dugu.

Adibidez, beti izaten da Asiatik etortzen den koruren bat.

Bai. Halere, egia esan, kopuru nagusia korruek europarrak izaten dira, abesbatzen tradizioa handiagoa delako. Bestalde, kontuan izan behar da bidaiaren kostua, handia izaten baita. Ukrainiako abesbatza, adibidez, autobusean dator, bidaia merkeago izateko.

Zer ordaintzen zaie etortzen diren abesbatzei?

Ostatua ordaintzen zaie; bidaia beraiekin kontu izaten da. Lehiaketaz kanpo kontzertu batzuk antolatzen ditugu eta horien bitartez dirutxo bat jasotzen dute.

Zer maila du Tolosako lehiaketak?

Nire ustez, Europako abesbatza lehiaketen artean goi mailan dago, eta ondorioz, munduan dauden lehiaketetan ere goi mailan dago.

Eskandinabiako korrak maila onekoak direla esan ohi da.

Tradizio handia dute eta baita formazioa ere. Hemen tradizioa badago, hori argi dago, baina abeslarien formakuntza ez dago hain landua. Herrialde horietan txikitatik hasten dira formatzen, ez bakarrik ahotsaren aldetik, baita musikari gisa ere. Beste adibidea Hungaria da. Iaz Hungariako Cantemus haur abesbatzak irabazi zuen Tolosako lehiaketa. Cantemus musikan espezializatutako eskola da. 16 urte dituztenak, bere bizitza guztian abesten aritu dira ikasleak, eta gehienetan musikariak ere badira,

«Hemen tradizioa badago, baina formakuntza ez dago hain landua»

instrumenturen bat jotzen ikasi dutelako. Ez da, beraz, astean behin edo bitan eskola kanpoko klaseetara joatea bezalako formakuntza.

Zer nabarmenduko zenuke aurtengo datozten abesbatzen inguruan?

Balsis abesbatza, esaterako, orain urte batzuk izan zen hemen, eta lehen bi sari lortu zituen. Oreya abesbatzak ere Tolosan jaso ditu lehen sariak. Beraz, zenbait abesbatza egongo dira, aurretik Tolosan irabazi dutenak. Oso gustura nago ere Landarbaso abesbatza hemen egongo delako. Korrak bikaina da eta Gipuzkoako

abesbatzen munduan erreferentzia. Bestalde, Asturiaseko El Leon de Oro abesbatza Espainiako onenetakoa da, eta orain gutxi Europako Sari Nagusian parte hartu zuen.

Hain justu, aurtengo Sari Nagusia Tolosan izango da, azaroaren 5ean. Zeinek irabaziko duela uste duzu?

Oso garbi daukat zeinek nahi duen irabaztea: KUP taldeko kide batzuk nire kolaboratzaile zutenak dira. Baina zaila izango da. Oso korrak onak daude. KUP-ek duen guztia ematen badu eta egun ona badauka, bere aukerak izango ditu. Goi mailako abesbatza da Europan.

Lehiaketara Tolosako entzule ugari joango dira, baina beste hainbat lekuetatik ere etorriko dira, ezta?

Gero eta jende gehiago etortzen da Madriletik, Zaragozatik, Galiziatik, Burgesetik,...

Dagoeneko, hainbeste urte ondoren, lehiaketako entzuleak ere aditu bilakatuko ziren.

Tolosan nabaritzen da noiz izan den errespetuz egindako txaloa eta gogo biziz egindakoa. Jendeak badu formazio bat, eta gainera, abesbatza asko daude Tolosan.

Kantatzeko modua ere aldatzen joango da.

Modak aldatu egiten dira, baina musikan garrantzitsuena jendearengana iristea da. Badaude taldeak perfektu egiten dutenak, baina azkenean disko bat entzutea bezala da. Nire ustez esnatu egin behar gaitu, emozionatu.

Gero, lehiaketan, epaileek dute azken hitza.

Bakoitzak bere irizpidea izaten du. Eskola eta izaera ezberdinetako epaileak bilatzen saiatzen gara, epaimahaia ahal den orekatuena izateko.



I. GARCIA





Duela urte bete sinatu zuten hitzarmena. I. TERRADILLOS

Adina eta ikastetxea hizkuntza-jarrerarekin lotuta daudela ikusi dute

Duela urte bete sinatu zuten, udalak eta Mintzola fundazioak, ahozkotasuna sustatzeko egitasmoa

Itzea Urkizu Tolosa

Tolosako hiru ikastetxeak ahozkotasunaren laborategi bihurtzeko egitasmoa martxan jarri zen duela urte bete, Tolosako Udalarren, ikastetxeen eta Mintzola fundazioaren arteko elkarlanean. Egitasmoaren lehen emaitzen arabera, adina eta hizkuntza-

rrera lotuta daudela esan daiteke, eta ikastetxe bakoitzean errealtate soziolinguistikoa desberdina dela.

Tolosako Udalak euskararen eta bere erabileraren inguruko gogoeta bat burutu zuen, eta 2000. urteaz geroztik gure hizkuntzaren erabilera ez zela aldatu ikusi zuten. Horrez gain, azken urteotan euskararen lehentasuna idatzizkoa izan da, eta ahozkotasuna bigarren mailako zerbait bezala hartu izan da.

Gauzak horrela, Mintzolak errealtate soziolinguistikoa hau aztertu eta euskararen erabilera, nahiz ahozkotasunaren garran-

tzia hezkuntzara bideratzeko, egitasmoa prestatu zuen. Beren arabera, «errealtate askotarikoak eskaintzen ditu Tolosak euskari eta ahozkotasunari dagokienez». Horrela beraz, ahozkotasuna sustatzea eta iturri oneko hiztunak ugaritzea helburu duen proiektua prestatu zuten, Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren babesarekin.

Lehen ondorioak

Lau urterako prestatuturiko egitasmo honek, egitura berbera jarraituko du urtez urte: aurre diagnostikoa egin, esku-hartu, horren diagnostikoa egin, ebaluazio bat-

burutu, ondorioak atera eta hobetzeko proposamenak egin.

Bide horretan, 2010-2011 ikasturteko lehen ondorioak esku artean ditu Mintzola fundazioak, eta aurrera begira, datozen hiru ikasturteetarako, baliagarriak izango zaizkie; izan ere, ondorio diakronikoak nahiz sinkronikoak aterako dituzte. Horrela beraz, iazko aurre-diagnosian burututako hainbat galderei erantzuteko aukera izan zuten aurreko ikasturteko emaitzekin.

Lehenik eta behin, ikasleek adinak ikasleek hizkuntza-jarreran eraginik ba ote duen jakin nahi izan zuten. Burututako jarduerak teoriko nahiz praktikoen arabera, ikaslearen adinaren eta hizkuntza-jarreraren artean erlaziorik badela ikusi dute Mintzola-ko arduradunek. Adina gora joan ahala, hizkuntzaren inguruko jarrerak ere aldatu egiten da: «estatistikoki frekuentzia ahula bada ere, DBH3 mailan hizkuntza ohi-turak aldatu egiten dira», diote arduradunek.

Bestalde, Hirukide, Laskorain edo Orixe ikastetxeetan errealtate soziolinguistikoa desberdinak izatean nolabaiteko eraginik ba ote duen aztertu nahi zuten, ikasleekin. Proiektuaren bidez, antze-man dute ikastetxea eta hizkuntza erabilera uztartu direnean, ikastetxe bakoitzean erabilera ohi-turak desberdinak direla.

Egoera honen aurrean, emaitza kuantitatiboak azpimarratu nahi izan dituzte lehen ondorio hauetan. Izan ere, «DBHko 1. mailan agertzen den jarrera positiboa lausotu egiten da adina gora doan heinean». Hizkuntza-erabilera maiztasun handiagoa nabaritu dute DBH 1en, eta DBH 3n, berriz, gaztelaniarako joera nagusitzen

da. Dena den, aipatu bezala, ikastetxe bakoitzaren errealtate soziolinguistikoa jarrean zein erabileran eragina du.

Maila kualitatiboan ere, hipotesi guztiak bete dira. Hasteko, hizkuntzaren edo euskararen garrantzia lurraldetasunarekin oso lotuta dago 12 eta 16 urte bitarteko gazteengan; hizkuntza ez dute jolasarekin, transmisioarekin, eta abarrekin lotzen. Era berean, hizkuntza-galeraren aurrean, askok «salbatzaile» papera hartzen dutela diote Mintzolakoei. Azkenik, nabarmentzeko da euskara espazio jakin batzuekin soilik identifikatzearena, eta baita euskara «salbatu beharrekoa, hitz egin beharrekoa edo ikasi beharrekoa» dela esatearena ere.

Aurtengo erronkak

Lehen esku-hartzearen ondoren, 2011-2012 ikasturterako erronka berriak dituzte egitasmoa parte hartzaileek. Hasteko, gazteen ahozko kompetentziak zertan diren eta nola hobetu daitezkeen ikertzen, zein espresintzia desberdinen praktikak bideratzeak indarra hartu behar duela erabaki dute.

Bide beretik, ikastetxeetako curriculumak, maila bakoitzeko helburuak eta irakasleek darabiltzaten material didaktikoak aztertu eta gero, zortzi sekuntzia didaktiko sortuko dituzte; bi maila bakoitzera.

Maila bakoitzera egokitutako bi testu genero, bi testu mota, ahozko jardun transakzionala eta formula, eta ahozko jardun interakzionala eta informala landuko dituzte. Honen harira, irakasleek euren ere formazioa jasoko dute eduki hauek gelan lantze aldera.

• tolosa@hitza.info



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 Casa Julian

Bi lagunentzako bazkaria edo afaria

Santa Klara, 6 • Tolosa
Tel.: 943-67 14 17

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51



2 Arregi Jatetxea

Bi lagunentzako bazkaria edo afaria

Herriko plaza, 7 • Berastegi
Tel.: 943-68 30 59

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52




3 Frida Ileapaindegia

Bi ile mozketa

Letxuga kalea, 2 • Tolosa
Tel.: 943-57 68 91

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53



fridaileapaindegia

4 Larte Idiazabal jatorriko gazta

Bi gazta

Ameriondo Etxea
www.euskalherrikoplaza.com/larte-gaztaindegia

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 54



Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zeineskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adieraziz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean, nahi duzun orduan. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

harpidedun **TXOKOA hitza** info

Prezio tasatuko sei etxebizitza eraikiko dituzte

2013 urte hasierarako bukatuak egongo dira; eskualdean erroldatuta egon behar da zozketan parte hartu ahal izateko

Iñigo Terradillos Gaztelu

Herriaren erdian, plazaren ondoan bi bizitzadun hiru etxe eraikiko ditu udalak. Prezio tasatuko etxebizitzak izango dira, eta 2013 urtearen hasierarako bukatuta egongo dira.

Sei etxebizitza horietatik bi esleituta daude dagoeneko, beraz, lau dira Udalak zozketatuko dituenak. Etxebizitza hauek jabetza erregimenean eskuratuko dira, eta familia unitatearen ohiko etxebizitza izateko erabili beharko dira.

Etxebizitza bakoitzak behe oina, goiko oina eta garaiea izango ditu. Azalera erabilgarria 89,81 m²koa izango da, eta garaiearen, berriz, 21,78m². Horrela egongo da etxebizitza banatuta: behe oinak sarrera, banatzailea, sukaldaria, jangela eta egongela eta bainugela izango ditu, eta goiko oi-

nak banatzailea, hiru logela bainua eta balkoia. Eraikinaren azalera 233,56 m²koa izango da.

Etxebizitza bakoitzaren salneurriari dagokionean, 240.404,85 eurokoa izango da, BEZa barne, eta esleipendunek hiru ordainketa egingo dituzte.

Zozketan parte hartzea

Prezio tasatuko etxebizitza hauen zozketan parte hartu ahal izateko baldintza batzuk bete beharko dira. Eskatzaileak adinduna izan beharko du, eta Gaztelun edo Tolosaldean egon beharko du erroldatuta. Eskaerarekin batera, 12.000 euroko behin-behineko fidantza jarri beharko da, eta unitate eskatzaileak 35.000 euroko edo gutxiagoko diru-sarrera haztatuak jaso beharko ditu. Eskatzaileek ezin izango dute inongo etxebizitzaren jabe izan. Baldintza hauek guztiak egiaztatzeko dokumentazioa gutunazal batera aurkeztu beharko dute Gazteluko udaletxean.

Eskaera orriarekin eta baldintzak egiaztatzeko dokumentazioarekin batera, aurkeztu beharreko guztia udaletxeko idazkariak zehaztuko du.



Gazteluko plazaren ondoan eraikiko dituzte sei etxebizitzak. HITZA

Hala, udalak behin-behineko zerrenda egingo du aurkeztu direnekin. Zerrenda hori udaletxeko iragarki-taulan egongo da hama-bost egunez erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Ondoren, alkateak, hirigintza zinegotziak, udal arkitekto-aholkulariak eta idazkariak osaturiko mahaiak

erreklamazioak aztertuko, eta behin betiko onarpena emango dio zerrendari. Era berean, eskatzaileen arteko zozketa egiteko eguna eta ordua zehaztuko dituzte.

Zozketa publikoa izango da, eta udaletxeko batzar aretoan egingo dute. Etxebizitzarik egokitu ez

zaien eskatzaileak suertatzen diren ordenaren arabera, itxarotzerrendan sartuko dira. Etxebizitza egokitu zaien 15 eguneko epean esan beharko dute onartzen duten edo uko egiten dioten. Zozketaren inguruko informazio gehiago nahi duenak udaletxeko idazkaritzara jo dezake.

31 lagunek hartu dute parte Berastegiko Argazki Rallyan

Azaroaren 13an egingo den Azoka Berezian jakingo da irabazlearen izena; argazkiak sarean ikusgai egongo dira

I. Terradillos Berastegi

Guztira 31 lagun aritu ziren, argazki kamera eskuan zutela, hilaren 7tik 12ra herrian zehar argazkiak ateratzen. Urtero antolatuta ohi duten Argazki Rallyan ari ziren parte hartzen, eta ateratako guztietatik lehiaketarako hiru ederrenak aukeratu ostean, epaimahairen esku dago orain azken erabakia.

Parte hartzaile horietatik guztietatik, 22 lagunek argazki kamera digitalekin egin zituzten argazkiak. Hauentzat ezarritako gaia *Udazken loreak* izan zen. Argazki kamera analogikoarekin, berriz, 9 lagun aritu ziren. Hauek udazken fruituei eginiko argazkiak aurkeztu behar zituzten lehiaketara. Batzuek zein besteek Berastegiko mugen barruan atera behar zituzten argazkiak.

Antolatzaileak «oso gustura» azaldu dira rallyak beste behin izan duen parte hartzearekin; «beste urteetako kopurua errepi-



Aurtengo Argazki Rallyan parte hartu duen argazkietako bat. HITZA

katu dela esan daiteke, eta gainera, adin guztietako jendeak hartu du parte; beraz, hori poztekoa da».

Irabazlearen izena

Aipatu bezala, parte hartzaile bakoitzak egun horietan ateratako argazki guztietatik berari iruditzen zaizkion hiru ederrenak aukeratu ditu, eta horiek aurkeztu behar dituzte. Argazki horiek guztiak Be-

rastegiko Udalaren webgunean egongo dira laster ikusgai. Hala, ber, kultur aste osoan zehar, hau da, azaroaren lehenengo astean, irudi guztiak ikusgai jarriko dituzte frontoi ondoko aparkalekuen azpiko lokalean.

Irabazlearen izena jakiteko, baina, azaroaren 13ra arte itxarotzen beharko da. Epaimahaiak Azoka Berezia egiteko den egunean emango du argazki ederrenaren egilearen izenaren berri.



Pasa den urteko txapelketako irabazleak. HITZA

Ion Ander Izagirre Frontenis Txapelketan izena emateko aukera

Azaroaren 8ra arte egin ahal da; partidak azaroko azken bi asteburuetan jokatu dira, eta finala abenduan

I. Terradillos Berrobi

Laster hasiko dira entzuten XX. Ion Ander Izagirre Frontenis Txapelketako pilotakadak. Hain zuzen ere, azaroko azken bi asteburuetan jokatu dituzte partidak, eta finalak abenduko lehenengoa. Eskualdean egiten den txapelketarik helduenean lehiatu ahal

izateko dagoeneko izena eman daiteke.

Banaka zein binaka parte hartu ahal da dute mutilek, eta neskek, berriz, binaka baino ez dira ariko. Banaka lehiatu nahi dutenek 5 euro ordaindu beharko dute, eta binaka ariko direnek 10 euro. Berrobiko udaletxean, Iturriza dendan, Iriarte jatetxean edota Aralar Kirolak dendan eman ahal da izena, azaroaren 8a baino lehen. Ondoren, zozketa egin ohi dute egutegia zehazteko. www.izagirrefrontenistxapelketata.com webgunean emango dute horren berri.

• ibarraldea@hitza.info

Itzea Urkizu

Felix Irazustabarrenak (Alegia, 1961) bi hamarkada daramatza bertsolari txapelketa nagusietan, epaile lanetan. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan, final zortzirenetako fasean aritu da bertsolarien lanari puntuak jartzen. Azken hamarkadetan bertsolaritzak eta bere inguruko munduak jakintza maila handitu egin duela uste du, bertsoa bera ikergai izan delako.

Zer nolako maila ikusi duzu, orain artean, Gpuntuaz?

Ni epaile moduan aritu naiz final zortzirenetako fasean, eta maila oso ona izan dela uste dut.

Pasa den udaberrian, 70 bertsolarik parte hartu zuten fase berezi batean. Aukera ona izan al zen trebatzeko? Zer iruditu zitzazun?

Fase hau jarri zenean, aukera bat emateko ideiarekin jarri zen. Aukera, gainera, bikoitza zen, izan ere, joan-etorriko bi saio egin behar zituen bertsolari bakoitzak. Erdi mailako bertsogintza pixka bat aktibatzen helburuaz ere jarri zen fase hura; bertso eskolak aktibatu nahi izan dira antolaketaren inguruan, eta baita bertsolarien jarraitzaile moduan ere. Helburuak oso ondo bete zirela uste dut. Gainera, goiz eta arratsaldeko saioak izan ziren, tartean bazkariarekin, eta giro oso ona lortu zen. Jendeak kantatzeko aukera eduki zuen, eta mailarik onena eman zutenak oraindik txapelketan ari dira.

Saioak desberdinak izango dira ikusle bezala edo epaile bezala. Berdin gozatzen al duzu saioez?

Bai, gozatzen dut. Gehiagotan ere galdetu izan didate gauza bera. Beharbada egia da, beste era batez izango dela, beste eginkizun bat dudalako. Baina nik, saioa ona baldin bada, ondo pasatzen dut epaile bezala ere.

Txapelketek gero eta arrakasta handiagoa dute. Urtean zehar plazetan jendetza bera ikusten al da?

Nik uste dut publiko desberdina dagoela plazetan eta txapelketan. Kontuan hartu behar da, Gipuzkoako Txapelketa lau urtez behin izaten dela, eta saio kopuru jakin bat izaten da. Euskal Herrian zehar, berriz, urtean mila saiotik



I. GARCIA

Felix Irazustabarrena • Gpuntuako epailea

1993az geroztik, bertso txapelketa eta sariketetan epaile gisa aritzen da. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa final laurdenetako saioetan da jada, eta Gpuntuaz nahiz bertsolaritzaz aritu da Irazustabarrena.

«Eskualdeko bertsolariek behin eta berriz erakutsi dute zein maila duten»

gora egiten dira. Kopuruena, beraz, erlatiboa da. Bakoitza bere inguruko saioetara joaten da, eta momentu onean gaudela uste dut; ez dago jendetza ikaragarriarik saioetan, baina jende gutxi ere ez. Badira beti jendetsuak izaten diren saio batzuk, eta horrela jarraitzen dute urtero.

Publikoa, batzuetan ez da ados egoten epaileen erabakiarekin. Zein dira epailearen irizpideak bertsolaria puntuatzerakoan?

Ez da oso erraza azaltzen. Dena den, irizpideak publikoak dira, eta Gpuntuako web orrian irakur

daitezke. Gutxi gorabehera, publikoak egiten duen gauza bera egiten dugula uste dut: bertsoa osotasunean hartu, eta komunikatzeko izan duen gaitasuna begiratu, zer transmititu duen, zer eskaini duen, eman dituen balorak, ... Alde tekniko ere baloratzen da. Beste guztiak egiten duten gauza bera egiten dugu guk, baina nolabait, zatiak bereiziz.

Ia 20 urte daramatzazu epaile moduan. Epaile berriak sartzean, ikasi ere egin beharko dute, ezta?

Bai, gero eta gehiago gainera. Ni sartu nintzenean ez zegoen hain-

besteko ohitura. Epaile taldeak urtean zehar badu eginkizun bat; epailearen eginkizun nagusia,

Publiko desberdina izaten da plazetan eta txapelketetako saioetan

zenbait sariketa eta txapelketa txiki betetzeaz gain, bere burua trebatzea da. Ikastaroak egiten ditugu, eta gure artean entrenamendu modukoak ere bai; helburua ez da guztiok irizpide bera iza-

tea, aurkakoa izan beharko lukeelako. Trebatzea da helburua. Azkenaldian egin izan ditugu ikastaro espezifikoak umoreari buruz, generoari buruz, eta abar.

Urte hauetan guztietan bertsoa bera ere aldatu egin da. Horrek epaile lanari nola eragin dio?

Baiez uste dut. Ni hasi nintzenean teknikari pixka bat erreparatzen zitzaion, baina gaur egun, transmititzeari eta komunikatzeari ere, gero eta gehiago begiratzen zaio. Funtsean gauza bera dela uste dut. Gaur egun bertsolari asko daude, eta teknikoki oso onak dira gehienak. Beraz, bertsolari batetik bestera desberdintasun gehiago izaten dira, transmititzen duten horren arabera.

Nola ikusten dituzu eskualdeko bertsolariak aurtengo Gpuntuaz?

Jexux Mari Irazu pasa da hurrengo fasera. Berrobin jaiotako lasarteak, Unai Muñok, oraindik ez du kantatu. Eta Amaia Agirrek ere oraindik ez du kantatu. Aukera asko dituztela uste dut. Behin eta berriz erakutsi dute zein maila daukaten, eta Amaia Agirre eta Irazu finalean egondakoak dira. Ez dut ezer deskubrituko hau esanda, eta aukera asko dituzte.

Bertsoreen inguruko kultura zabaltzen ari da, eta gero eta jende gehiago dabil bertsoreen inguruan. Ikusentzuleak trebatuago al daude gaur egun, duela urte batzuk baino?

Epaileekin gertatzen den gauza bera dela uste dut. Duela 15 urte, edo 50 urte, gauza bera izango zen; bertsolariak zerbait transmitituko zuen, eta hori publikoak jasoko zuen. Beharbada, urte haueetan guztietan, bai publikoan, bai epaileetan, bai bertsolaritzan oro har, aldatu dena zera da, bertsoreen arte hori egiteko forma aztertu egin dela. Ikertu egin da mundu horren barruko trama hori, eta ondorioz, guztiok gehiago dakigu bertsoaz eta bertsolaritzaz. Garai batean Uztapideak kantatzen zuen bertsoreen inguruan, orain gehiago dakigu beharbada, bertsolaritzak eta bere inguruko jendeak ikertu egin baitu Uztapidek edo beste bertsolari batek zergatik eta nola osatu zuen bertso bat. Azken finean, jakintza maila bat da hori.

• tolosaldean@hitza.info

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	15°
HOTZENA	11°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitz, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

- **Tolosa.** Udaberri dantza taldeak helduentzako ikastaroa antolatu du. Izena www.udaberri.com webgunean eman daiteke, azaroaren 2ra bitarte.
- **Alkiza.** Amañili Alkizako emakume taldeak antolatuta, hitzaldia eta tailerra izango dira urriaren 29an. *Educar para la libertad* hitzaldia 15:00etatik 16:00etara bitarte izango da, eta *Fracaso escolar* tailerra 17:00etatik 20:00etara.

IPUIN KONTAKETA

- **Tolosa.** Aranburu jauregian, 19:00etan, Mohamed M. Hammuk *Patera de cuentos* narrazio berbera kontatuko du, gazte-leraz.
- **Tolosa.** Linfedemari buruzko tailer irekia. 11:00etan hasiko da eta Minbiziaren Aurkako Elkar-tearen egoitzan egingo da.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa Etorbidea, 2. 943 65 46 10.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. 112.

BIHAR

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Irudia Tolosa



GERNIKAKO ARBOLA, IREKITA

Gernikako Arbolan lanak amaitu ondoren, ibilgailuentzako irekita geratu da. Hori bai, zirkulazioan aldaketa batzuk egin dira. San Juan kalea anbulatorioa joateko eta aparkalekura sartzeko bakarrik erabiliko da, eta irteera Batxiller Zaldibiatik izango da. Era berean, Gernikako Arbolako atzeko aldean, anbulatorioa eta Banco Vasconia arteko zatian, zirkulazioaren noranzkoa aldatu egin dute. I. GARCIA

Programazioa

28 KANALA

- **08:30.** On ein.
 - **09:00.** Amaigabeko istorioa.
 - **09:30.** Tolosaldean Gaur.
 - **10:00.** Bideoklipa.
 - **10:30.** Tertulia.
 - **11:00.** Tertulia.
 - **11:30.** Tolosaldean Gaur.
 - **12:00.** Eskuokin.
 - **12:30.** On ein.
 - **13:00.** Amaigabeko istorioa.
 - **13:30.** Tolosaldean Gaur.
 - **14:00.** Bideoklipa.
 - **14:30.** Tertulia.
 - **15:00.** Tertulia.
 - **15:30.** Tolosaldean Gaur.
 - **16:00.** Eskuokin.
 - **16:30.** On ein.
 - **17:00.** Amaigabeko istorioa.
 - **17:30.** Tolosaldean Gaur.
 - **18:00.** Walker.
 - **18:30.** Ikusmira.
 - **19:00.** Euskal Herriko Dantza Txapelketa.
 - **19:30.** Tolosaldean Gaur.
 - **20:00.** Auto klasikoak.
- (*16:30etik 20:00etarako blokea lau orduko errepikatuko dute)

TXOLARRE IRRATIA (107,6)

- **11:00.** Tolosaldeko Ahotso albistegia. Besteak beste, Nazioarteko Abesbatza Lehiaketaren inguruko berriak.
- **12:00.** Tolosaldeko Ahotso magazina. Besteak beste, Zortziko Aldrebesa tartean bertsolaritzaren inguruko albistek.
- **13:00.** Lehiaketa.
- **13:30.** Info 7ko albistegia.
- **14:00.** Tolosaldeko Ahotso albistegia.
- **16:00.** Pastadun.
- **17:00.** Kabitik plazara: Gpuntu. Oñati eta Villabonako saioei errepasoa. Bertsorik onenak, Jexux Mari Irazuri elkarrizketa,....
- **18:00.** Tolosaldeko Ahotso magazina.
- **19:00.** Tolosaldeko Ahotso albistegia.
- **20:00.** Info 7ko albistegia.
- **20:30.** Munduko.
- **21:30.** Bide Okeretik.

PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008



TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA

San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com

